

## LETRA Q MULTIESPECIE APLIKAZIOA ETA URTEKO BEHARREZKO LAGINEN BILKETA PLANAREN ALTA

*LETRA Q Multiespecie* aplikazio berriaren aldaketa dela bide, urteko laginketa planari alta emateko prozedura ere aldatu da.

Hauxe da aplikazioaren esteka:

<https://aplicaciones.magrama.es/LetraQTM-webapp/LetraQ/login-flow>

Web orrialdean sartzeko arazoren bat izanez gero, bilatu «*LETRA Q Ganaderia*» normalean erabiltzen duzun bilatzailean (Google, Firefox ...), eta lehena agertzen den emaitza izango da aplikazioaren web orrialdearen esteka.

*Usuario* eremuan — erabiltzailearen identifikazioan — **esne-zentroaren arduradunaren NANA** sartu behar duzu; *Contraseña* eremuan iaz jasotako klabe pertsonala (**21020492258** formatu duena). Beste aukera bat da **arduradunaren NANA sartzea bi eremuetan**.

Klabea aldatzeko aukera izango duzu ((\* *Para cambiar de clave pulse aquí*) hasiera-pantailan dagoen estekan.


### BEHI-ESNE eraldaketa-zentroen laginketa-plana erregistratzeko

Behi-esnearen plana LETRA Q aplikazio zaharrean erregistratu behar da.

Aplikazio berrian behin sartuta, pantailaren goiko ezkerreko ertzean ***Ir a LETRA Q (otras opciones)*** aukeratu behar duzu, eta LETRA Q lehengo aplikazioa agertuko da. (Aplikazio zaharra marroi argia da).



Planari alta emateko esteka ezker aldean dagoen zutabean aurkituko duzu: **“Gestión de Muestras Obligatorias”** - - - > **“Plan Anual de Muestras Obligatorias”**



**ARDI- eta AHUNTZ-ESNE eraldaketa-zentroen laginketa-plana erregistratzeko**

LETRA Q Multiespecieren hasierako pantailan (urdina), ezker aldean dagoen zutabean **Gestión de muestras y medias obligatorias** aukeratu behar duzu, eta han **Plan anual de muestras obligatorias**.

Hurrengo pantailan bi aukerak agertuko dira:

- **Alta del Plan Anual de Muestras Obligatorias**
- **Consulta del Plan anual de Muestras Obligatorias**



Laginketa-plan BERRIA erregistratzeko, lehenengo aukera hautatu behar duzu:

- **Alta del Plan Anual de Muestras Obligatorias**

PLAN ANUAL MUESTRAS OBLIGATORIAS

Entidades

Gestión de muestras y medias obligatorias

Alta del Plan Anual de Muestras Obligatorias

Consulta del Plan anual de Muestras Obligatorias

Año del Plan (aaaa): 2013

Código de Centro Lácteo: 01791 07

Especie: TODAS

CCAA del Centro: P. VASCO

Buscar

PLAN ANUAL MUESTRAS OBLIGATORIAS

Entidades

Gestión de muestras y medias obligatorias

Alta del Plan Anual de Muestras Obligatorias

Año del Plan (aaaa): \* 2015

Comunidad Autónoma: \* P. VASCO

Código de Centro Lácteo: \* 01791 07

Especie: \*

Fecha definición Plan: \*

Nº muestras anuales a tomar por explotación: \*

Nº muestras anuales a analizar por explotación: \*

Día tope de inclusión de muestras para el cálculo de media mensual (1 a 30): \*

Parámetros a analizar: \*

Urteko laginketa-planean ondoko datu hauek adierazi behar dituzu:

- **Planaren urtea.**
- **Planaren grabazio-data:** plana erregistratzen den data. **OHARRA:** Plana abian jarriko den urtearen aurreko urteko data bat ipini behar da, hau da, 2015eko plana erregistratzeko 2014ko data erabili behar da. Data formatu honetan eman behar da: (ee/hh/uuuu); eta ezinbestekoa da barrak (/) erabiltzea data sartzeko; bestela aplikazioak EZ DU PLANA ERREGISTRATUKO.
- **Urtean hartuko eta analizatuko den lagin-kopurua:** kanpainak zenbat hilabete iraungo dituen bider hilean hartuko den lagin-kopurua. (hilean 2 lagin gutxienezko kopurua da). Adibidez, kanpainak urtarrietik ekainera arte iraungo du (6 hilabete) bider 2 lagin/hilean berdin 12 lagin/urtean.
- **Hilabeteko batez bestekoa kalkulatzeko laginak noiz arte onartuko diren azken eguna:** esaterako, eremu honetan "30" ipini behar duzu, aintzat hartuko diren laginak hilaren 30era edo 31ra arte hartutakoak badira. Aitzitik, "1" ipini behar duzu hilaren 1era arte hartutakoak badira; hau da, maiatzaren 1etik ekainaren 1era arte. Oro har, "30" ipintzen da eremu hau betetzeko.
- **Aztertuko diren parametroak:** izozte-puntua (erantsitako uraren zehaztapena), gantza, proteina, esne-estraktu lehorra, zelula somatikoak, 30°C-ko tenperaturan dauden germenak eta antibiotiko-hondakinak.

Eremu horretan kanpaina **noiz hasiko den** eta **noiz amaituko den** aurreikusten diren **hilabeteak** adierazi ditzakezu, hilean zenbat laginak hartuko diren, gehitu nahi duzun gainontzeko informazioarekin batera.

Gogorazten dizugu **Urtean hartuko eta analizatuko den lagin-kopuru** eremuan *oinarrizko parametroak* (lehen aipatutakoak) aztertuko diren guztizko laginen kopurua adierazi behar dela; listeria, butirikoak edota eragilearen kalitate planean dauden beste parametro batzuk neurtzeko hartuko diren laginak EZ DIRA GEHITU BEHAR.

## Aurtengo laginketa-plana nola aldatu

Behin alta emanda, laginketa-plana aldatu edota zuzendu nahi izanez gero, **Consulta de Plan Anual de Muestras Obligatorias** aukeraren bidez egin behar izango duzu. Tresna hori orain arte alta emandako planak kontsultatzeko baliagarria da. **Aurtengo plana alda dezakezu** eta pasa diren kanpainetakoak kontsulta ditzakezu, baina azken horietan aldaketak egiteko aukerarik ez da izango.

Kontsultatu nahi duzun urtea **Año del plan** sartu ondoren, **Causas que justifiquen la variación...** eremuan, aldaketak adierazi ditzakezu. Adibidez, kanpainen zehar, edozein arrazoiaren bat dela bide, hartzen den lagin-kopurua ez badator bat plana erregistratzean adierazi zen kopuruarekin, **Causas que justifiquen...** eremuan aipatu ditzakezu arrazoiak, eta **Urtean hartuko eta analizatuko den lagin-kopuru** eremuan ipini dezakezu kopuru zuzena.

Año del Plan (aaaa): \* 2013 Comunidad Autónoma: \* P. VASCO

Código de Centro Lácteo: \* 01791 07

Especie: \* OVINA

Fecha definición Plan: \* 31/12/2012

Nº muestras anuales a tomar por explotación: \* 14 Nº muestras anuales a analizar por explotación: \* 14

Día tope de inclusión de muestras para el cálculo de media mensual (1 a 30): \* 30

Parámetros a analizar: \*

Descripciones anteriores: \* La campaña comienza en enero y está previsto que finalice en julio. Cada mes se realizarán dos analíticas de la leche analizando los siguientes parámetros: punto crioscópico, grasa, proteína, extracto seco magro, células somáticas, colonias de gérmenes a 30 °C y presencia de residuos de antibióticos.

Causas que justifiquen una variación en el número de muestras tomadas o en los parámetros: \*

Grabar Eliminar Volver